



(argazkia: Erein)

LITERATURA NABARMENDUAK PORTADAN

[BIDEOA] JOSU ZABALETAK JON ARRETXEREN 'INTXAURRONGO: INTXAURRAREN HOSTOPEKO ITZALA' LIBURUA EUSKARATU DU

By Ainhoa Lores Aranda / 2021-05-12

Arretxek hiru hamarkada behar izan zituen indarrak bildu eta jasandako torturei buruzko lekukotasuna *Intxaurrondo, la sombra del nogal* liburuan jasotzeko. Gaztelaniaz egin zuen El Garaje argitaletxearen bidez, 2015ean.

1985eko azaroaren 26an guardia zibilak Jon Arretxe (Errenteria, Gipuzkoa, 1964 – Madril, 2017) ohetik altzarazi eta mendira eraman zuten; hondakinak jasotzeko erabiltzen diren plastikozko bi zakutan sartu, momia baten antzera biltzeko zintaz estutu, eta galdekatu egin zuten, behin eta berriz murgilaraziz burua ibai batean. Handik Intxaurrondora eraman zuten. Arretxekin batera Idoia Aierbe, Manuel Bizkai eta Mikel Zabalza atxilotu zituzten, azken honen kasuan, hil arte torturatu zuten.

Arretxek hiru hamarkada behar izan zituen indarrak bildu eta bere lekukotasuna *Intxaurrondo, la sombra del nogal* liburuan jasotzeko. Gaztelaniaz egin zuen El Garaje argitaletxearen bidez. Lana argitaratu eta bi urtera hil zen idazlea, 2017an.

Lekukotasun gordin hori euskaraz jaso nahi izan dute orain, eta Inazio Mujika **Erein** argitaletxeko editorearentzat berandu ibili badira ere, garrantzitsua da "lekukotasuna jada hemen dela, torturatuen hizkuntzan idatzia". Mujikak aitortu duenez, ezustekoa hartu zuen liburua irakurtzerakoan, torturari buruzko lekukotasun bat jasotzeaz gain, liburuak balio literario handia duelako: umorea, zehaztasuna eta elkarriketen bizia du, garai baten testigantza da eta gorroto alerik ez da. Bere aburuz, "nobela bat da, nahiz eta bertan kontatzen dena egia izan".

Josu Zabaletak hartu du Arretxeren liburua euskarara ekartzeko ardura, "ez ditugu gauza guztiak euskaraz esan, baina ez gara isildu, esateko geneuzkan gauza guzti horiek gaztelaniaz edo frantsesez esan ditugu, hori dena normalizatu nahi badugu nolabait eta euskal gizarte bat eraiki nahi baldin badugu euskarara ekarri behar da. Gure memoria, gure historiaren errelatoa euskaraz egin behar dugu", adierazi du itzultzaileak.



Zabaldu:



Tags: Erein argitaletxea, Intxaurrondo Intxaurraren hostopeko itzala, Jon Arretxe



MASKARADA GOGORATZEKO UNITATE DIDAKTIKOA ETA ARGAZKI ERAKUSKETA IBILTARIA, LEIOAN

EKIDAK 'MANIFESTUA' IKUSKIZUNA TAULARATUKO DU ELORRION, GASTEIZEN, AZKOITIAN ETA BERRIOZARREN



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Kultura eta Hizkuntza Politika Saila (Departamento de Cultura y Política Lingüística) diruz lagundua